



GETXOKO IKASTETXEEK ANTOLATZEN DITUZTEN ESKOLA-ORDUZ KANPOKO JARDUERETAN EUSKARA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

2024-2025 IKASTURTEKO DEIALDIA

SARRERA

Getxoko Udalak dituen helburuen artean euskararen erabilera sustatzea agertzen da. Helburu hori bideratzeko ESEP, Erabilera Sustatzeko Ekintza Plan Estrategikoa 2019-2022 onartu zuen 2019ko (2024ko urtarrilaren 23ko udal Gobernu Batzak luzatua; 14 zenbakia duen akordioa); ESEPen helburu nagusietako bat euskara gizartearen eremu guztietara zabaltzeko ahaleginetan interesgarriak izango diren ekimenak sustatzea da.

ESEP, Erabilera Sustatzeko Ekintza Plan Estrategikoa, euskararen erabilera sustatzeko plan gidaria da. Bertan, normalizazioari begira garatu nahi diren esparru eta helburuak zehazten dira. Helburu horien artean, Getxon hezkuntzan orokorrean eta herriko ikastetxeetan garatu beharreko jokabidea definitzen da.

Deialdi hau, plan estrategiko horretan oinarrituta dago eta Getxoko Ikastetxeetan garatzen diren eskola-orduz kanpoko jarduerak laguntzeko asmoarekin egiten da. Horregatik azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege orokorrarekin eta eta Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak Dirulaguntzak Ematea Araupetzeko, 2021eko abenduaren 23ko Osoko Bilkuran onartutako ordenantzarekin bat etorrira (2022ko martxoaren 16ko 52 zenbakia duen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua), deialdi hau argitaratzen da, Getxoko ikastetxeek eta guraso elkarteek, eskola-orduz kanpoko jardueretan euskara sustatu, zabaldu edo normalizatzeko burutzen dituzten proiektuentzako dirulaguntzak emateko.

ARAUDIA

LEHENENGOA: HELBURUA

Getxoko ikastetxeek, **2024ko irailaren 1etik 2025ko ekainaren 30era**, eskola-orduz kanpoko jardueretan euskara sustatu, zabaldu edo normalizatzeko burutzen dituzten proiektuentzako dirulaguntzak nola emango diren araupetzea.

BIGARRENA: DIRULAGUNTZA MOTAK

Dirulaguntza hauek, erakunde eskatzailearen ohiko egitasmo eta jarduerak lagundu eta sustatzeko dirulaguntzak dira.

HIRUGARRENA: ERAKUNDE ETA PERTSONA HARTZAILEAK

- * Getxon kokatuta egon eta ikasketa ez-unibertsitarioak eskaintzen dituzten ikastetxeak.
- * Guraso elkarteak, ikasle-taldeak, ikasle ohien taldeak eta irakasle taldeak, beti eta burutzen duten lana Getxon kokatuta dagoen ikastetxe batean egiten badute.



LAUGARRENA: DIRULAGUNTZA EMANGO ZAIEN JARDUERAK

<p>Eskola-orduz kanpo</p>	<p>Orokorrean, euskararen erabilera aktiboa sustatzen duten jarduerak lehenetsiko dira: ahozkotasuna, murgiltzea, euskara modu aktiboan... sustatzen duten jarduerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> * Ikastetxean, euskara sustatzeko helburu nagusiarekin garatzen diren plangintza integralen barruan txertatuta dauden eskola-orduz kanpoko jarduerak. * Eskola orduz kanpo (autobusean, jolasgunean eta abar) garatzen diren jarduerak puntualak, beti ere, euskaraz garatzen badira bere osotasunean. * Ikastetxeak antolatutako sentsibilizazio eta motibazio saioak. * Ikastetxeek edo guraso elkarteek, eskola-orduz kanpo antolatutako euskararen errefortzu klaseak. * Eskola-umeekin egiten diren asteburuetakako irteera eta jarduerak ludikoak, hirietan garatzen diren koloniak, udalekuak eta antzekoak * Jarduerak aurrera eramateko egiten diren kontratazioak.
<p>Eskola-orduz kanpo</p>	<ul style="list-style-type: none"> * Eskolako jarduerak arruntaz aparte, ikasleek argitaratzen dituzten aldizkari, komiki, ikus-entzunezko eta abar, beti eta, ikastetxearen eremuan argitaratzen badira. * Euskararekin, euskararen historiarekin edo hizkuntzarekin lotura duten jarduerak. * Goian agertzen ez diren kasuetan, laguntza-gai den jarduerak, Getxon, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak, irakaskuntzaren esparruan, dituen helburu eta ardatz estrategikoekin uztartzen den ala ez aztertu eta Euskara Zerbitzuak erabakiko du diruz laguntzen den aipatutako jarduerak.
<p>Eskola-orduetan</p>	<ul style="list-style-type: none"> * Ikastetxe eta institutuetan Euskararen Eguna, Euskararen Astea eta antzekoak ospatzeko ekitaldiak.

BOSGARRENA: SARTZEN EZ DIREN JARDUERAK

Orokorrean, Getxoko ESEP, Erabilera Sustatzeko Ekintza Planarekin bat ez datozen jarduerak.

- * Eskola-orduetan antolatutako txangoak.
- * Eskolako jaiak, kultur egunak, asteak... (Euskararen Eguna, Euskararen Astea izan ezik).
- * Eskolak, eskola-orduetan, antolatutako ipuin kontalari saioak, hitzaldiak...
- * Eskolaren diseinu kurrikularrean sartutako jarduerak.
- * Euskaraz bere osotasunean garatzen ez diren ekintzak.
- * Ikasleentzat zuzentzen ez diren jarduerak.
- * Eskola ordutegian edo egutegian egiten diren txangoak, irteerak, edo jaialdiak (San Tomas, Santa Ageda, Olentzerori bisita...).



SEIGARRENA: AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ETA EPEAK

2024ko MAIATZAREN 29ra arte (barne)	<p>01.- AURREKONTUA: jardueraren aurrekontu zehatza, gastuak eta sarrerak ondo zehaztuko dituena.</p> <p>02.- JARDUERAK: jarduerak aurrerago aipatutako multzoetan batuko dira: ikus 8. puntua.</p> <p>03 eta 04.-Zorrik ez izatea Gizarte Segurantzarekin, Foru Ogasunarekin eta Getxoko Udalarekin: eskatzaileak besterik adierazten ez badu, Getxoko Udalak ofizioz ikuskatuko du eskatzaileak ez duela zorrik Gizarte Segurantzarekin, Bizkaiko Ogasunarekin eta Getxoko Udalarekin. Eskatzaileak kontsulta horien aurka dagoela adierazten badu eskaera elektronikoan erantsi beharko ditu zorrik-ez hori ziurtatzen duten/dituzten dokumentua/k.</p> <p>05.- DOKUMENTAZIO OSAGARRIA: bakarrik lehen aldiz eskatzen dutenentzat:</p> <ul style="list-style-type: none">• Eskatzailearen IFK fotokopia.• Erakundearen estatututuen kopia.• Jarduera euskaraz burutuko dela esaten duen idatzia eta jarduera aurrera eramango duen/duten pertsonaren/pertsonen euskara maila frogatzen duen agiria.
--	--

ZAZPIGARRENA: ESKAERAK AURKEZTEKO TOKIAK ETA EPEAK

Eskariak Udaleko bulego elektronikoaren bitartez aurkeztu beharko dira: [Getxoko egoitza elektronikoa](#).

ESKAERA AURKEZTEKO EPEA

BAOan argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean [2024ko maiatzaren 29ra arte \(barne\)](#).

Ez dira onartuko egitasmoaren azalpen-txostena aurkeztu gabe edota Getxoko Udalak aurreko urteetan emandako dirulaguntza zuritu ez duten pertsonak edo erakundeek aurkeztutako eskaerak.

Aurkeztutako eskaera edo entregatutako dokumentuak osatu gabe badaude edo zuzendu beharreko akatsaren bat badute, eskatzaileari agindeia egingo zaio, 10 asteguneko epean, agindeia jakinarazi ondorengo egunetik hasita, dena delako akatsa zuzentzeko. Horretaz gain, egin ezean bere eskaera baliogabetuta geratuko dela ohartaraziko zaio.



ZORTZIGARRENA: DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

1.- Dirulaguntza deialdi honetako gehieneko kreditua **42.000 eurokoa** izango da. Kreditu hau Getxoko Udalak 2024 urterako onartutako aurrekontuen 4810000 kodea duen partidatik aterako dira

Diru kopuru hau aukeratutako proiektuen artean banatuko da. Diru kopuru hori honela banatuta egongo da:

Eskola orduz kanpo	A ildoak: barnetegiak, urte hasieretako Hizkuntza-berreskuratze saioak, asteburuak inguru euskaldunetan... intentsitate altuko eta iraupen laburreko ekimenak. Hizkuntzaren erabilera aktiboa bilatzen duten ekimenak, murgiltze-egoerara hurbiltzen diren ekimenak.	5.000
	B ildoak: antzerkiak, bertso ikastaroak, berbodromoak, berbalagunak... Intentsitate altuko eta iraupen luzeko ekimenak, egunerokoak eta urte osokoak. Bertan euskararen ahozko erabilera aktiboa bilatzen da.	10.000
	C ildoak: errefortzu klaseak... Euskararen ezagutza eta erabilera indartzea helburu duten saioak, ikastetxearen hizkuntza-eskaintza osatzen duten saioak, hizkuntza-maila bereziki baxua duten ikasleentzako ekintzak.	7.000
	D ildoak: musika, kirola, eskulanak, dantza, teknologia... eguneko irteerak, jaiak... Alde batetik, intentsitate baxuko baina iraupen luzeko ekimenak, egunerokoak eta urte osokoak. Bertan euskara komunikazio-hizkuntza da, baina ez da bilatzen ahozko erabilera aktiboa: Beste alde batetik, intentsitate baxuko eta iraupen laburreko ekimenak...	15.000
Eskola-orduetan	E ildoak: ikastetxe eta institutuetan Euskararen Eguna, Euskararen Astea... ospatzeko ekitaldiak.	5.000 euro

2.- Jaso litekeen dirulaguntza ez da, inolaz ere, aurkeztutako egitasmoak duen aurrekontua baino altuagoa izango.

3.- Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira bestelako erakunde batzuek, publikoak nahiz pribatuak, ematen dituztenekin. Inola ere ezin izango da gain-finantzaketarik egon.

4.- Guraso elkarte edo ikastetxe bakoitzak aurkeztutako ekimen guztiak ildoan (A, B, C, D edo E) sailkatuko ditu **02 JARDUERAK eranskinaren** arabera.

Ildo berdinean dauden ekimen guztiak (A, B, C D edo E ildoak) batu behar dira gorengo zutabeetan markatutako irizpideen arabera **02 JARDUERAK** eranskinean adierazten denez.

5.-Ildo bakoitzean guraso elkarte eta ikastetxeek proposatu dituzten ekimen guztiak lehiaketan sartuko dira "ZORTZIGARRENA 1.- puntuak" proposatutako kopuru osoa banatu arte, **BEDERATZIGARREN** puntuak agertzen diren balorazio irizpideen arabera.



Behin eskaera guztiak aurkeztuta, lehenengo balorazioa egingo da. Lehenengo balorazioa egin ondoren ildoren batean dirua soberan balego edo ildoren batean ez balitz ekimenik proposatuko edo aurkezten diren proiektuak gain finantziatzeko arriskua balego, soberan den kopurua gainontzeko ildoetan banatuko da (E ildoan izan ezik) honela:

	A	B	C	D
A ildoan ez balego eskaerarik edo gainfinantziazioa balego	-	%33	%17	%50
B ildoan ez balego eskaerarik edo gainfinantziazioa balego	%20	-	%20	%60
C ildoan ez balego eskaerarik edo gainfinantziazioa balego	%17	%33	-	%50
D ildoan ez balego eskaerarik edo gainfinantziazioa balego	%25	%50	%25	-

6.- Lehenengo balorazioaren ondoren ekimenen bat egin-ezina dela komunikatzen bada:

- Ildo berdinean sailkatu ahal den eta maiztasuna eta iraupen berdin edo antzekoa duen beste ekimen batengatik ordezkatu ahal izango da.
- Ez bada ordezko ekimenik aurkezten HAMABIGARREN puntuan aipatzen den itzulketa egin beharko da
- Lehenengo balorazioa egin ostean ekimenen bat egin-ezina dela erabakitzen bada, ez da honi zegokion dirua birbanatuko.



BEDERATZIGARRENA: BALORAZIO IRIZPIDEAK - PUNTUAZIO IRIZPIDEAK

Proiektuak baloratzeko orduan bi irizpide hartuko dira kontuan: **kostua eta interesa**, euskararen erabilera eskola-orduz kanpo sustatzearen ikuspegitik. Horretarako, azpian dagoen taulan agertzen diren alderdiak baloratuko dira:

<p>Egindako esfortzu ekonomikoa: ildo bakoitzean (E ildoak izan ezik) esleitutakoaren %25a izango da</p>	<p>Ekitaldia antolatzean egiten den esfortzu ekonomikoa baloratuko da. Atal honi dagokion dirua eskatzaileak ekimena aurrera eramateko aurkeztutako aurrekontuaren arabera banatuko da proportzionalki.</p>	
<p>A ildoak (5.000 euro).-Intentsitate altuko eta iraunkortasun laburreko ekimenak. Hizkuntzaren erabilera aktibo bilatzen dute, murgiltze egoera batera hurbiltzen dira: <u>barnetegiak eta antzekoak, ikasturte hasierako berreskuratze-saioak, asteburu-pasak inguru euskaldunetan...</u></p>	<p>Hartzaile kopurua</p>	<p>10 laguneko puntu 1</p>
	<p>Iraupena</p>	<p>Eguneko puntu 1</p>
<p>B ildoak (10.000 €).-Euskararen intentsitate altua eta iraunkorra izaten dituzten ekimenak; egunerokoak eta urte osokoak (gutxieneko iraupena hilabete) non euskara hizkuntza behikularra izateaz gain hizkuntzaren ahozko erabilera aktiboa sustatzen den: <u>antzerkia, bertso ikastaroak, berbodromoak, berbalaguna...</u></p>	<p>Maiztasuna</p>	<p>Asteko ordu bakoitzeko puntu 1</p>
	<p>Hartzaile kopurua</p>	<p>10 laguneko puntu 1</p>
	<p>Iraupena</p>	<p>Hilabeteko puntu 1</p>
<p>C ildoak (7.000 €).- <u>Errefortzu klaseak</u> euskararen ezagutza eta erabilera indartzea helburu duten saioak; ikastetxeko hizkuntza eskaintza osatzera datozen saioak, hizkuntza maila baxua duten ikasleentzako pentsatutako ekintzak; adibidez eskola-orduz kanpoko errefortzu klaseak.</p>	<p>Maiztasuna</p>	<p>Hilabeteko puntu 1</p>
	<p>Hartzaile kopurua</p>	<p>10 umeko puntu 1</p>
	<p>Iraupena</p>	<p>Asteko ordu bakoitzeko puntu 1</p>
<p>D ildoak (15.000€).-Euskararen intentsitate baxua baina iraunkorra izaten dituzten ekimenak; egunerokoak eta urte osokoak non euskara hizkuntza behikularra den baina ahozko hizkuntzaren erabilera aktiboa ez den bilatzen: <u>musika, kirola, eskulanak, dantza, teknologia...</u> Hemen sartzen dira baita ere intentsitate baxuko eta iraunkortasun laburreko ekimenak, askotan egun bakarrera bideratutako eguneko irteerak, jaiak eta abar, beti ere eskola-orduz kanpo.</p>	<p>Maiztasuna</p>	<p>Asteko ordu bakoitzeko puntu 1</p>
	<p>Hartzaile kopurua</p>	<p>10 laguneko puntu 1</p>
	<p>Iraupena</p>	<p>Hilabete bakoitzeko puntu 1</p>
<p>E ildoak (5.000€).-Ikastetxe eta institutuetan <u>Euskararen Eguna, Euskararen Astea</u> eta antzekoak ospatzeko ekitaldiak.</p>	<p>BH, Batxilergo eta Lanbide Heziketako zentroetan:</p>	<p>Aurrekontuaren %50, gehienez, 650 euro</p>
	<p>Haur hezkuntza eta Lehen hezkuntzako zentroetan</p>	<p>Aurrekontuaren %50, gehienez, 450 euro</p>

Deialdi hauen eranskinean, balorazio mekanikaren adibidea eskaintzen da.



HAMARGARRENA: EBAZPENEA

Deialdi honetan jasotako laguntzak emateko organo instruktorea Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzua izango da. Ebazpena emateko eskumena Tokiko Gobernu Batzak izango du. Dirulaguntza emateko proposamena organo kolegiatu batek egingo dio Tokiko Gobernu Batzari. Organo Kolegiatua osatzen duten kideak, 2022ko apirilaren 11ko 1536/2022 dekretuak aldatu zuen ekainaren 26ko 3235/2019 dekretuak jasotzen dituenak dira.

Ebazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen inguruko 39/2015 legearen 21.2 artikuluan ezarritakoari jarraiki. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik ematen ez bada, dirulaguntzaren eskaera ukatuzat hartuko da, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen inguruko 39/2015 legearen 25. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Deialdi honetan araututako laguntzak emateko edota pertsona edo erakunde onuradunei ordaintzeko, itzultzeko edozein prozedura edo edozein zehapen-prozedura amaitu beharko da; hots, Getxoko Udalak emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidean dagoena.

HAMAIKAGARRENA : DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

Dirulaguntza hauek egiaztapena egin aurretik ordainduko dira, jarduera egin ahal izateko nahitaezko finantzazioa direla kontsideratzen delako.

HAMABIGARRENA: HARTZAILEAREN EKIMENEZ EGINDAKO ITZULKETA

1. Borondatezko itzulketa da onuradunak Administrazioaren inolako errekerimendurik gabe egiten duena.
2. 887/2006 Errege Dekretuaren 90. artikulua xedatutakoaren arabera, onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Udalak emandako dirulaguntza, Udalak eskatu gabe.
3. Horretarako, lehenengo, onuradunak berak Udalaren dirulaguntza itzultzeko eskabidea egingo du, zergatiaren berri emanez. Onuradunak berak eskatuta dirulaguntza itzultzeko, ordainketa-gutun/errezibo bat erabiliko da. Ordainketa-gutun/errezibo hori Udalak luzatuko dio onuradunari.

HAMAHIRUGARRENA: BETEBEHARRAK

Dirulaguntza jasoko luketen pertsonak edo erakundeek honako betebeharrak dituzte:

- a. Dirulaguntza deialdian ezarritako baldintza partikularrak eta Diru-aguntzak Ematea Araupetzen duen Udal Ordenantzan aipatzen diren arau guztiak betetzea.
- b. Emandako dirulaguntza onartzea. Hamar eguneko epean, dirulaguntza onartu dela jakinarazten den egunetik hasita, pertsonak edo erakundeek ez baldin badiote espresuki eta idatziz jasotako dirulaguntzari uko egiten, ulertuko da onartu dutela.
- c. Aurre-ikusitako proiektua edo programa egitearen ondorioz sor daitezkeen erantzukizun guztiak onartu.
- d. Dirulaguntza eman zaion programa ez aldatu udaleko Euskara Zerbitzuak aurrez baimenik eman gabe.
- e. Emandako dirulaguntzaren ezarpena egiaztatzeko eta jarraipena egiteko Euskara Zerbitzuak erabakitako jarduerak onartu.
- f. Beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik (Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia...) eta egitasmo berberak laguntzeko jasotakoak adierazi beharko dira.
- g. Antolatzen diren jardueretako begiraleei buruzko ondorengo datuak aurkeztu beharko dira
 - a) Izen eta abizenak
 - b) Kurrikuluma edo aurkeztutako egitasmoan begirale izateko izan duen Prestakuntza
 - c) Euskara maila (ez da beharrezkoa baldin eta informazio hau datu base ofizialen batean baldin badago)



- h. Iragarkietan, egiten duen publizitatean eta orokorrean, komunikazio ekintza guztietan Getxoko Udala babesle gisa agertuko da. Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak euskararen erabilera sustatzeko erabiltzen duen logoa ere agertuko da.
- i. Egitasmoak baztertzailerak ez izatea, ez arrazagatik, ez sexuagatik, ez erlijioagatik, ez iritziengatik...
- j. Proiektuarekin, programarekin edo jarduerarekin lotutako iragarkietan eta komunikazioetan hizkuntza eta irudi sexistarik ez erabiltzea.
- k. Proiektuarekin, programarekin edo jarduerarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan hizkuntz normalizaziorako irizpideak bete.

JARRAIPENA

Dirulaguntzaren eskatzaileak abisatu gabeko bisitak onartzen ditu, umeekin lan egiten duen begiraleak ohiko hizkuntza bezala euskara erabiltzen duela ziurtatzeko asmoarekin. Jarraipenerako bisita hauek antolatzea Euskara Zerbitzuaren kontua izango da eta horretarako kanpoko nahiz barruko aholkularitza izan ahal du.

Udal dirulaguntzak emateko araudian zehazten denez, laguntza eskatzen duen erakundea jarraipen bisitak onartzera behartuta dago. Jarraipeneko bisita hauen ondoren Euskara Zerbitzuak egiten duen txostena loteslea izango da organo instrukzio-egilearentzat.

HAMALAU GARRENA: DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATU

Dirulaguntza eman zaion jarduera amaitutakoan, dirulaguntza hori zuzen erabili dela adierazten duten dokumentuak eman beharko dira. Dokumentazio hau Udaleko Administrazio Elektronikoko Bulegoaren bidez aurkeztu beharko da.

<p>2025eko maiatzaren 30a arte. (barne)</p>	<p>1.- MEMORIA Ildo bakoitzean (ikus deialdi honen 9. puntua) garatu diren ekimenak aipatuko dira; iraupena, erabiltzaileak eta ikastetxeak edo guraso elkarteak egiten duen balorazioa.</p> <p>2.- BALANTZEA ILDOKA (ikus deialdi honen 9. puntua) Jardueraren gastuen eta diru-sarreraren balantze zehatza ildoka (ikus deialdi honen 9. puntua). Ildo bakoitzeko balantze bat aurkeztu beharko da. Jarduera burutzeko beste. Erakunde publiko edo pribaturen baten dirulaguntza ere jaso baldin bada, gastuen eta sarreraren balantzean zehaztu.</p> <p>3.- GASTUEN ZURIKETA</p> <p>3.1. Gastuen zerrenda ildoka Lagundutako jarduera burutzean egon diren gastuen zerrenda, deialdi honen 9. puntuan agertzen diren ildoan arabera. Zerrenda honek ondorengoak jasoko ditu: hornitzailea, kontzeptua, kopurua, fakturaren data eta hala badagokio, ordainketa data. Zerrenda honetan diruz lagundutako ildoaren aurrekontuaren %100 agertu behar da.</p> <p>3.2. Faktura originalak Aurreko puntuan adierazitako gastuen zerrendaz gain, jasotako diru kopuruaren %10 gutxienez suposatzen duten fakturak aurkeztu beharko dira (fakturak edo bestelako agiriak, merkataritzako trafiko juridikoan froga-balioa dutenak edo eraginkortasun administratiboa dutenak). Fakturak diruz lagundutako jarduerarekin lotura behar dute izan eta ez dira sartzen pertsonal gastuak.</p>
---	---



	<p>Euskara Zerbitzuak hala baderitzo, edozein momentutan eskatu ahal izango du jarduerarekin lotutako beste edozein egiaztagiri.</p> <p>4.- MATERIALA Dirulaguntza jaso duen jarduerarako publizitatea egin bada: esku-orri, kartel... guztien ale bana.</p>
--	---

- Zuriketak aurkezteko azken eguna **2025eko maiatzaren 30a** izango da.
- Justifikatzeko aurkeztu den dokumentazio guztiak dirulaguntza ematen den ekitaldi ekonomikoaren data izan beharko du.
- Gastuak benetakoak direla egiaztatzeko, GASTUAK ZURITZEKO ZERRENDAN agertzen diren gastuen faktura originalak eskatu ahal izango ditu Udalak, edozein momentutan.

HAMABOSTGARRENA: DIRULAGUNTZA ITZULI

1. Jasotako dirulaguntza, hura jaso zenetik itzultzea erabakitzen den arte sortutako atzerapen interesekin batera, Udaleko Diru-kutxetara itzuliko da honako egoeraren bat ematen denean :

- Jasotako dirulaguntza ez erabiltzea aipatutako helburuekin.
- Dirulaguntza jaso izatea horretarako baldintzak bete gabe.
- Onuradunari leporatu dakizkioken arrazoiak direla eta, deialdi honetako 13. artikuluan jasotzen diren onuradunaren betebeharrak ez betetzea.
- Gastuaren ziurtatze partziala egiten bada, egiaztatu ez den zatia itzuli beharko da.
- Jardueraren kostu errealarari dagokionez, gehienezko finantzazioa sortzea. Horrelakoetan itzuli beharko da soberakinaren batuketa.
- Beste erakunde publikoen edo pribatuen dirulaguntzak jasotzeagatik gainerako finantzazioa egotea. Horrelakoetan, onuradunak gainditutako zenbatekoa Getxoko Udalaritzaren itzuli beharko dio, azken horrek finantzatutako guztiarekin dagokionez emandako zenbatekoaren proportzioan.
- Dirulaguntzak emateari buruzko ebazpen honetan bereziki ezarritako baldintzak edo betebeharrak ez betetzea, jarduera egiteko erari edo proiektua burutzeari dagokionez. Kontuan hartuko da arau-hausteen larritasuna itzuli beharreko kopurua zehazteko, ekitate eta proportzionaltasun printzipioei jarraiki.

2. Itzuli beharreko zenbateko guztia edo partziala erabakitzeko proportzionaltasun eta ekitate printzipioak hartuko dira kontuan eta kasu zehatz bakoitzaren baldintzei egokituko zaizkie.

3. Dirua itzultzea erabakitzen duen ebazpena dirulaguntza eman zuen erakunde berberak egingo du.

4. Itzultzeari buruzko espedientea 887/2006 Errege Dekretuaren 2. kapituluaren ezarritako prozedura-arauei araberakoa izango da.

5. Dirulaguntza itzultzeko beharra egiaztatu ondoren, erakunde eskudunak horri buruzko ebazpena egingo du. Ebazpen hori arrazoitua izango da, eta bertan aipatuko da dirua itzultzeko arrazoiak, itzuli beharreko dirua eta boluntarioki dirua sartzeko epea. Horretaz gain ohartaraziko zaio, dirua horretarako ezarritako epearen barruan ez baldin baduela entregatzen premiamendu bidez egingo dela.

HAMASEIGARRENA: ZEHAPEN ARAUBIDEA

Urrapen eta isunen araubidea izango da Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren IV. Tituluaren ezarritakoa eta Euskal Herriko Herri Administrazioen Zehapen Ahalmenaren otsailaren 20ko 2/1998 Legearen ezarritakoa, hala nola, dagozkien garapen araudietan eta 2021eko abenduaren 23ko Osoko Bilkuran onartutako ordenantza (2022ko martxoaren 16ko 52 zenbakia duen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua).

HAMAZAZPIGARRENA: DATUEN BABESA



Esleipena jasotzen duenak, indarrean dagoen datuen babesari buruzko araudiak ezartzen dituen betebeharrak bermatu behar ditu:

- Jasotako datu pertsonalak beste helburu ezberdin baterako ez ditu erabiliko.
- Hirugarren bati datu pertsonalik ez dio komunikatuko, legezko betebeharrak ez badago.
- Datuen babeseko araudiak zehaztutako sekretu-betebeharrak mantenduko ditu.
- Datu pertsonalak jasotzen dituzten dokumentu edo sistemetan, segurtasun neurri egokiak ezarriko ditu.
- Interesa duten pertsonen bidez jakinaraziko dizkio bere datuak ezingo direla laga.
- Interesa edo eta eskumena dutenen datuak babesteko egin ahal dituzten eskerei jaramon egingo die.
- Bereziki zainduko ditu adingabekoen datuen trataera. Datu hauen konfidentzialtasuna ziurtatuko du eta adingabearekin inolako harreman juridikorik ez duten hirugarrenen eskuetara ailegatzea galaraziko du.

HAMAZORTZIGARRENA: INTEROPERABILITATEA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikulua ezartzen du interesdunek eskubidea dutela administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko.

Getxoko Udalean gai honetako eskumena duen zerbitzuak/sailak dokumentu horiek kontsultatu edo bildu ahal izango ditu, interesdunak horri aurka egin ezean. Kontuan izan aurka egiteko eskubidea erabili duzun izapideetan hura izapidetzeko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko duzula. Datu pertsonalen trataera legitimatuta dago interes publikoaren izenean edo Getxoko Udalari berari emandako botere publikoaren izenean egindako eginkizun bat betetzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Getxoko Udalari dagokio prestazio/laguntza/dirulaguntza/beka honetara sartzeko eta mantentzeko araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea, Administrazio Publiko ugarietatik bitarteko telematikoen bidez jasotako informazioa aintzat hartuta.

Arrazoi teknikoak direla-eta, interoperabilitatea ezinezkoa bada, Getxoko Udalak dokumentuak aurkezteko eskatu ahal izango du.

HEMERETZIGARRENA. ARGITALPENA

Deialdia Dirulaguntzei buruzko Datu Base Nazionalean erregistratuko da eta web orrian argitaratu.

Deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da diru-laguntzen Basearen bitartez.

Deialdiaren ebazpena ere Diru-laguntzei buruzko Datu Base Nazionalean argitaratuko da, Halaber, Udalaren web gunean ere argitaratuko da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Deialdi honetan aipatu ez denari dagokionez, Dirulaguntzak Ematea Araupetzen duen Udal Ordenantza eta azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorra aplikatuko dira eta baita aplikatu ahal den gainontzeko araudi sektorial edo garapenerakoa.



Getxo

bizi ezagutu

